

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2100

AGINDUA, 2019ko apirilaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Herriko Unibertsitateko goi-hezkuntzako zerbitzu publikoengatik 2019-2020 ikasturtean ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen eta prezio horietatik salbuesteko eta beroriek gutxitzeko baldintzak zehazten dituen agindu-proiektua.

Hezkuntzako sailburuak agindu-proiektu bat prestatu du, Euskal Herriko Unibertsitateko goi-hezkuntzako zerbitzu publikoengatik 2019-2020 ikasturtean ordaindu beharreko prezioak finkatzeko eta prezio horietatik salbuesteko eta beroriek gutxitzeko baldintzak zehazteko; Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean zehazten denaren arabera izapidetu behar da proiektu hori.

Lege horren 8.1 artikulua arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Halaber, xedapenen izaera aintzat hartuta komenigarria baldin bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Halaber, 8/2003 Legearen 8.4 artikulua arabera, nahikoa izango da hogeit hamar egun balioduneko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Jendaurrean jartzea, hogeit hamar egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, honako agindu-proiektu hau: Euskal Herriko Unibertsitateko goi hezkuntzako zerbitzu publikoengatik 2019-2020 ikasturtean ordaindu beharreko prezioak finkatu eta prezio horietatik salbuesteko eta beroriek gutxitzeko baldintzak zehaztekoa.

2.– Agindu horren eraginpeko interes legitimoen baten jabe direla uste duten pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatu guztiak kontsulta dezakete agindu-proiektu horren espedientea. Horretarako, Zerbitzu Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora jo beharko dute (www.euskadi.eus), goian adierazitako epearen barruan, eta aurkeztu ahal izango dituzte egokitzat jotako alegazio, agiri eta frogagiri guztiak.

Vitoria-Gasteiz 2019ko apirilaren 15a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.